



Leitzako Zaldi Egun ikusgarriak jendetza bildu du Inguruarte

IKUSKIZUNA ▶ Hainbat arraza, kolore, tamaina eta izaerako zaldiak bildu zituen atzoko ekitaldiak

GAUR ▶ Gorritarango Eguna ospatuko dute Leitzan, Kaxeta aldean, egitarau oparoarekin ▶ 5



Egun guztian zehar erakustaldiak egin zituzten zaldunek. ESTI EZEIZA



E. EZEIZA/A. IMAZ



Aisirako aukera nonahi San Pedro jaien baitan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Eskualdeko herri eta auzo ugari San Pedro jaietan murgildurik jarraituko dute gaur ere ▶ 4

MARIO MOLINA ▶ KIMIKA NOBEL SARIA

«Europa nahiko aktiboa da, Kiotoko hitzarmena eta gero»

Aldaketa klimatikoaz aritu da aste honetan Naturaldia jardunaldietan ▶ 6

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Usabalgo igerilekuan olatu artifiziala egitea zer iruditzen zaizu?

Lotsa ematen du gure herriko ordezkari omen direnak horrelako gauzetan pentsatzen aritea. Nabari da bai ez direla inguru horretara asko gerturatzeko, bestela beste zerbaitetan pentsatzen arituko lirakeke. Iaz igerilekuan ezin sartu ibiltzen ginen, bai uretan baita zelaian ere, herriarrentzat hoberena egin nahiko balute igerilekua handituko lukete eta txorakeriak alde batera utziko lituzkete, baina, beti bezala, jendeak dioena entzun gabe nahi dutena egingo dute.

MAITE ▶

Eta igeriketean ari garenean, surfistak buru gaintetik pasako al zaizkigu? Esplicitakutoko al

zenukete hobeto projektua?? Hobe diru hori beste «behar» batzuetarako erabiliko balute, eta ez Kaliforniara gure kontura bidaiatzeko olatuaren aitzakia dela eta. Ez dute lotsik!!

ANTXONI ▶

Izugarrizko txorakeria iruditzen zait. Dirua hori baino gauza interesgarri eta beharrezkoago baten gastatzea logikoagoa iruditzen zait. Ideia betetzea dirua alperrik gastatzea iruditzen zait.

- ▶

Erokeria dena zera da: dirua beharrezkoak ez diren gauzetan xahutzea, festa gastronomikoak, esaterako. Bien bitartean, Tolosako benetako arazoak hor jarraitzen dute eta orain beste dirutza suposatuko lukeen proiektua jarri nahi dute martxan. Diru hori aurreztuta, Voith-Gorostidiko etxebizitzak ez al lirakeke merkeagoak? (oraindik hasi ez diren obrak dira...)

IRATI ▶

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Tregua eta zutabegintza



ETAK ez balu tregua hautsi, gaurko artikulua Aralar eta Izquierda Unidakoek osatutako koalizioari buruz idatziko nuen. Izan ere, diputaziorako sobrea botoa sartzekoan duda egin nuen. Ezker abertzaleak aurkeztutako sigla-konbinazio guztiak ilegalizatu, logikoa zirudien boto «pragmatikoago» baten alde egiteak, eta tentagarria zen PNV, PP, PSOE eta antzeko erakundeetan indar pixka bat kentzen saiatzea. Dударik gabe, Aralar-Izquierda Unida koalizioa aukera bat zen. Halere, nulo botatu nuen (berriro). Ezkerra eta zuzen politikoa erabat bateraezina direla uste dut eta, zerbait badira, Aralar eta Izquierda Unidakoak errektuak dira, dudarik gabe. Kabroixeagoak balira, ba akaso botoa emango nieke (baina, ziur, kabroixeagoak balira eurek ere nulo bozkatuko zuten azkeneko hauteskundeetan).

Halere, ETAK tregua hautsi duenez, ba ja zail

xamarra da halakorik idaztea. Panorama ilundu egin zaigu: badakigu hildakoak, kartzelak eta antzekoak datozkigula (berriro), eta inkontzientzia edo buru-arinkeria hutsa litzateke, halakoak bistara eduki, eta Aralar eta Izquierda Unidakoak nahikoa kabroiak ez direla eta antzeko txorakeriak esanez zutabea idaztea. Bestalde, tregoarik ezaren berria orain gutxi jaso eta politiko ez den zerbait buruz idaztea burua jiratu eta beste norabait begiratzea bezala litzateke; periodikoetan txoko bat dugunok posizionatu beharra dugula dirudi. Eta hor bi aukera dituzula dirudi: errua gobernuarena dela esaten artikulua bat idazten duzu (urtebetean ezertxo ere egin ez dutelako) edo ETAKoak ero gaizto batzuk direla idazten duzu (dirudienez berriro jendea hiltzen hasiko direlako). Baina gauza argia da azkeneko urtebetean egin diren pauso eta elkarrizketak ezezagunak zaizkigula ia guztioi, eta ez jakin zarela iritziak botatzen hasia erridikulu xamarra bada behintzat.

Zail dirudi zerbait esan eta arinkeriarik ez botatzea, edo etikoak izateko erosoegiak diren jarrerak ez hartzea. Ba, hori, ETAK tregoa hautsi duela eta, garai txarrak direla zutabegintzarako.

ASTEKO IRUDIA ▶

NEREA URBIZU



Mario Molina Kimika Nobel Saria Tolosan

Erredakzioa ▶ Mario Molina Kimika Nobel Saria Tolosan izan da aste honetan, asteartean. Naturaldia jardunaldietan parte hartzen. Molinak ozono geruzako zuloa deskubritu zuen bere ikerketa taldearekin batera. Hain zuzen ere, Chillida-Lekun munduaren

berotzeari buruz eman zuen hitzaldia. Tolosako udaletxean harrera egin zioten, aureskua dantzatu ostean eta Juan Kruz Igerabide alkizarrak berak egindako eskultura oparitu zion.

KULTURA ▶

IMANOL ARTOLA

Horrela dio Aiztondo I. Gutun Lehiaketako lan irabazleak.

Kaixo Bihotz:

Gutun hau irakurtzen duzunerako ez naiz bizirik egongo. Horregatik berarekin batera nire argazki bat bidali dizut zure aitaxo nor zen jakin dezazun (ezkerrean erdi-etzanda dagoena).

Gauza asko ditut zuri kontatzeko, baina, ez daukat denbora askorik, goizeko hirurak pasatxo dira eta laster etorriko dira faxista terrorista zikinak guturiko batzuk fusilatzen. Ni izan ninteke; beraz, al bait arinen esango dizut esan beharrekoa.

26 urte nituen zure ama haurdun geratu zenean. Biok ginen zoriontsu 1936ko uda haren hasieran, baina, nik bannuen zalantza bat, bannuen eztrian halako korapilo bat. Gerra Zibila. Banekien une batetik bestera izango zela bere hasiera, eta beldur nintzen bertara joan beharra eta zu ezagutu gabe geratuko ote nintzen. Beldur nintzen, alde egin behar izan eta zuk zure aita ezagutuko ez ote zenuen. Eta hori gauzatzear dagoela uste dut. Gehien maite dudana pertsona, inoiz ikusi eta entzun ez dudana da eta hori da minik handiena ematen didana, gehien maite dudana ni gorrotatzearen beldurra dut, eta horregatik idatzi nahi dizut.

Lehen esan moduan, beldur bakarra nuen, eta beldur hori, 1936ko abuztuaren 4an jaso nuen. Gerrarako bidea hartu behar izan nuen, nahi nuen, Euskal Herri Gorria nahi nuen, eta nahi dut, baina zu besoetan nahi izate hori... baina, esan bezala abuztuaren 4 hartan, zure jaiotzarako aste bat-edo falta zela, etxeko eskopeta hartu behar izan nuen, Komunisten Frontetik deitu ziguten eta. Ez ziren aste gutxi batzuk Calvo Sotoloren hilketa gertatu zela eta 5 egunera, uztailaren 18an, estatu kolpe militarra eta gero, *gurutzada santua* izeneko bo-



«Algorta, 1941»

Aiztondo I. Gutun Lehiaketaren irabazleak Gerra Zibila izan du hizpide bere lanean: Imanol Artola amezketarrak irabazi du helduen mailan: Hauxe da saritua izan den lana

rroka armatuaren aurkako plana prestatzen ari ginen, eta egun hartan, Marianeko anaia zaharrena, Lizardiko Antonion aita eta zure adin bereko izango den Aioraren aitarekin joan nintzen.

Gau hartan bertan, Joxepaneko Juan gorraren anaia zaharrena, Frankisten aldekoa, Antonionen aitari tiro bat bota eta bertan utzi zuen, Zelaitik irten eta gutxira, Abaltzisketarako bidean. Ez zen golpe polita izan. Ikusi nuen nola egin zion tiro eta bertan akabatu genuen Juanen anaia, amorroaren amorruz, bakarrik zegoen azeria segituan garbitu genuen. Baina gaua gaizki igaro genuen. Beldurrez eta ezin lokartu. Hurrengo egunak bezalaxe.

Handik hilabete batzuetara, Gernikan ginen, batailak galdu eta galdu, baina etsi gabe, errenditu zen herria utzi eta hurrengora bidean, horrela, Gernikara heldu arte. Bertan, Marianeko anaia zaharrenaren ondoan bonba batek eztanda egin eta ezker hanka galdu zuen. Mina ezin jasan eta bera hiltzeko esan zidan, berarekin amaitzeko, eta bost tiro bota nizkion, negarrari eutsi ezinda.

Eguna ezin okerragoa zenez, Antton, Aioraren aita, eta ni espetxean sartu gintuzten. Eguna borobiltze aldera edo, Algortako espetxera eramantuz gintuzten. Ezin nuen gehiago, egia esan, faxista putasemeen bonbetatik libre banengoen ere, beren tortura eta egoera jasangaitza dela-eta, hainbat bider pentsatu izan dut neure buruaz beste egitea, baina, zuzan pentsatzen, atzera bota izan dut ordura arteko nahi zoroa.

Tortura gogorak, gela hezeak, gosea, egarria, lagunak eguneroko galduz, gaueroko tiro hotsak, *Gaur ni ote naiz?* nire buruari galdetuz... Gaizki, oso gaizki pasatu dut. Bost urte hauetan 4 hatz galdu ditut eta 42 puntu jaso. Bada zerbait, baina, halere ez naute isilarazi.

Egun gogorretan, Gernikako bonbardeaketa, gerraren amaia eta gure porrota, beste lagun minen heriotza... horrelako egunetan are indar gehiagoga mintzatzen nintzen. Gauean, jendea fusilatzen zihozazenean, betikoa zen *Hijos de puta, Maricones, ¡no os atreveis con todos a la vez eh!* eta horrelako oihuak, atea kolpatuz, gauerokoa zen. Denok protestan, bai-

na, batez ere ni. Askotan, horrelako gauean jasotzen nituen beren zartadak. Muturreko garbiak, labanaz hatzak moztuz, edota ebakiak, nire sufrimendu garrasiaren ostean *Hijo de puta* eta listua botatzen nien aurpegira. Ez nintzen kokiltzen, atzoko gaua heldu zen arte.

Gaueko lauretan etorri ziren beti bezala nazi zikinak, eta nire alboko gelaren atea irekitzen hasi ziren, Anttonen gela hain zuzen. Beti poza hartzen nuen ni baino lehenago gertatzen baziren, horrek beste egun bat gehiagorako bizia ematen zizulako, eta agian, aske irteko aukeraren ilusio faltsua. Faltsua diot, eguneroko askoz fusilatutako gehiago baitziren aske utziak baino. Eta atzo, Anttonen gelako atea irekitzean *Hijo de puta* esan nuen berrehala, *Animo Antton, Euskal Herri Gorria hirekin* eta segituan nire ateari danbategokoa isiltzeko esanaz. *Venga, levántate puto vasco, que ya eres libre, puedes irte a casa si no la han derrumbado. Jajaja!* entzun nuen, orduan Anttonek *Gora eusko gudariak, gora zuek, zuen alde borrokatuko nauk! Zuek ere egunen batean*

ni bezala aske izan zaitezten! eta nik *Bihotzi eskuminak* esan eta *Eusko gudariak* abesten hasi nintzen. Denak txaloka, abesten eta irrintzika. Halako gauak gutxi izaten dira, askatuak soilik diren gauak, baina atzokoa hala izan zen. Eta Antton aske uztean, nire zeldara sartu ziren. *¿A quien le llamas hijo de puta? Pasalo bien esta noche, que sera la ultima, mañana vendremos a por ti* esan eta horrela utzi ninduten, burua jan beharrean. Ez nekien egia zen ala ez, eta ez dakit.

Hamabost minutu geratzen dira lauretarako, laster jakingo dut. Horregatik idatzi dizut gaur, agian aukera gehiago izanen ez dudalako, beti idatzi nahi izan dizut, baina, ezin nuen, gogorregia zen niretzat pentsatzea ez zintudala inoiz ikusiko, ez entzungo, ez besarkatuko... ezin nuen sinetsi, eta horregatik, gaur arte, ez dut adorerik izan. Gaur ere ez dut adorerik, baina, gaur ziurrenik banao. Banao tortura zulo honetatik eta banao bizitzatik. Banao, zu ikusi gabe, eta zure berri izan gabe. Ez dakit bizirik zauden ala Gernika eta Durango bezalako bonbardeaketa masiboa egin duten Zelain. Ez dakit ez eta gutun hau inoiz jasoko duzun, baina jasotzen baduzu, egon harro zure aitaz, Euskal Herri Gorri Independentista batengatik borroka egiteagatik gartzelaratu eta hila izan da, zu defendatzeagatik. Eta ez da izan, zu bertan behera laga zaituen aita koldarra.

Badatoz, oin hotsak isildu dira. Niregandik bost gelatarako geratu dira, Peru badaramate, baina ez da bakarra izango, beste pauso batzuek nire gela pasatu dute, uste dut Inazioaren gela sartu direla, denak oihuka ari dira, *Gora Euskal Herria* esanaz, eta nire lehen gaua da oihurik egiten ez dudala.

Oin hotsak geratu dira, nire gelako sarraila irekia da.

Felix, zure aita eta milaka Eusko Gudarietako bat.

hilberria ▶



Miren Arruti Orbegozo
(Herenegun hil zen 51 urte zituela)



Etxeko saminarekin bat egiten dugu

Agirre Alustiza sendia

Hileta elizkizuna, bihar astelehena, 19:00etan, Orioko Bariko San Nikolas parrokia elizan izango da.

ORIO, 2007ko uztailaren 1a

urteurrena ▶

Joxepa Amiano Luluaga
II. urtemuga



Mundua zer den ikasi eta gogoz egin duzu lan ta bizitzaren legeak zaitu guregandik eramán

Gaur igandea 11:15ean Alegiko San Juan Bautistan ospatuko den elizkizunera gonbidatzen zaituztegu.

ALEGIAN, 2007ko uztailaren 1ean

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

SAN PEDRO JAIK ▶

Etxean geratzerik ez

Eskualdeko herri eta auzoetan San Pedro jaiak ospatzen jarraitzen dute



Amarotz auzoan buruhandiak eta haur jokuak izan ziren goizean, Asteasun berriz herri kirol erakustaldia izan zen. Irudian, Jokin Alkizaletre. A. I.



Zizurkilen Joxe Arregi plazan bazkaldu zuten koadrilek atzokoan. Leaburuko musulariak berriz Zazpi Bide elkartean bildu ziren. A. IMAZ

ASIER IMAZ

San Pedro jaiak Zizurkilgo koadrila egunak eta Ibarako Moto Festak eskualdeko herri asko musikaz estali zituen atzokoan. Zizurkilen jaiak irailean badira ere, atzokoan koadrilek euren eguna ospatu zuten. Lehenik 13:00etan bildu eta herri pote-

oa burutu zuten. Behin ezta-
rriak bustita, sabela betetzeko
garaia iritsi zen eta Joxe Arregi
plazan bazkaria egin zuten.
Ondoren mahai jokoa ibili zi-
ren, sagardo kupela gertu zu-
telarik.

Amarotz auzoan ere jaiak os-
patu zituzten atzokoan, haur jo-
las eta bizikleta karrera izan

zelarik bertan atzokoan, musi-
ka ahaztu gabe. Asteasun Jubi-
latu Eguna ospatu zuten atzoko-
an. Meza entzun eta hamai-
ketakoa egin ondoren, herri
kirolak ikustera bildu ziren he-
rriko plazan. Bertan Alkizalete
anaiak eta Otaegi eta Lopez II.a
aritu ziren aizkoran. Izeta II.ak
eta Marijo Sardonek berriz ha-

rri-jasotzen abila direla era-
kutsi zuten. Leaburun berriz
Mus Txapelketa jokatu zuten
atzokoan Zazpi Bide elkartean.
Arratsaldean berriz, euskal
presoen aldeko kontzentrazioa
burutu zuten.

Areson ere San Pedroak os-
patu dituzte. Atzokoan eskean
ibili ziren baserrietan barrena.

AZOKA ▶

Tomate eta letxuga aukera handia izan da postuetan

Berrikuntzen artean, berotegietatik at landatutako lekak izan ziren atzokoan

PABLO ALBERDI

Eguraldi bikainarekin esnatu zen atzoko goiza Tolosan. Azkenik, eguzkia irten zen eta honek goiza alaitu zuen. Bestalde, honen ondorioz jende asko ohikoa baino beranduago hurbildu zen azoka bitzitzera.

Atzoko berrikuntza azpi-marragarriena berotegietatik at ereindako lekak izan ziren. Aurten aurreneko aldira ikusi baitira Tolosako azokan. Aurkitu zitezkeen gutxi hauek lau euroten truke saldu ziren. Berrikuntzen artean nabarmendu daitezke ere bertako gerezakiak. Hauek berriz, hiru eurotan saldu ziren.

Aurreko larunbatetako eskaintzarekin jarraituz, tomate eta letxu aukera oparoa aurki zitezkeen azokako postuetan. Zein, labelarekin edo ez, kalitate eta itxura oso onekoak ziren. Oraindik ere Ibarako piperren aukera handia topatu daitezke merkatuko saltokietan, hauek lehengo prezioarekin jarraitzen dute, 7 eurotan kiloak. Esan beharra dago joan den urtean, garai hauetan baino merkeago zegoela.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Geranio hiedra	2,15	2,20
Alegria	1,20	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak		
Ziza	20,00	30,00
Tipula	0,50	1,00
Ardi gazta	14,00	18,00

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Letxua	1,00	-

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Giltzak. Giltza batzuk galdu dira Tolosako Rondilla kalean, giltzetako elastiko morearekin. 647 31 91 27.

Aurtengoan ere, Toureko tropela Mediterraneora!

Abian da tropa.net: tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea dohainik.
Izen emateko orria: tropa.net, orrialde 7, 18-00etan

Barrioan gertan, Hilarren Harapaila irabazteko aukera. tropa.net

hitza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Trakatan trakatan... dotore

Giro aparta eta ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan zen atzo ospatutako Zaldi Egunean

ESTI EZEIZA

Egun pasa ederra egiteko aukera izan zen atzo Leitzan, giro bikaina baitzegoen Inguruartereko zelaietan. Arraza, kolore, tamaina eta izaera ezberdinetako zaldiak bildu ziren Leitzako Zaldi Egunean. Bi eskualdeetako zaldunak ez ezik, kanpoko zaletu ugari ere bildu ziren. Egun hau, galdu ezinezko hitzordu bilakatu baita jada animalia hauek gustuko dituztenentzat.

Goizean goizetik hasi zen jendea biltzen herri inguruko zelaietan. Beste behin ere, zalditoki handi bilakatu zen atzokoa Inguruartere. Hasteko, mendian zehar ibilaldiak egiteko garaian, bidean izaten dituzten oztipoen antzekoak ipini zizkieten zaldiei: koskak, bihur-guneak, errekoak... Hala, zaldunen gidatuta denbora jakin baten azpitik traba horiek gainditu behar zituzten. Gehienei aurrenekoan irteten ez bazitzairen ere, ekin eta ekinez, az-

kenean lortzen zuten. Bitartean, gaztettoenek pottoketan eta zaldi karroetan paseo txiki bat egiteko aprobetxatzen zuten.

Egun honekin, hasiera batean kirola zenari beste zentzu bat ematea lortu dute Aurrera elkarteok. Zaldiarekin eta hipikarekin erlazioa zuten ekitaldi guztiek, baina txapelketetako serioetasuna alde batera utzita, jendeari kirol eta zaletasun hau hurbiltzeko bidea ere izan zen atzokoa.

Egurdian, bazkaldu aurretik, zaldi proba eta hauen prestaketa nola egiten den ikusteko aukera ere izan zen plazan. Jarraian, parte-hartzaile guztiak bazkaltzera bildu ziren. Azkenik, arratsaldean, egunari amaiera emateko, western erako heziketa, heziketa naturala, espainiar erako heziketa, heziketa klasikoa, goi mailako eskola, traba saltoa, erakustaldi artistikoa, eta behor estalketa egin zituzten han bildutako zaldunak.



Egurra eta lurrairekin egindako plataforma baten gainera igo behar zuten zaldiek. E. EZEIZA



Zaldi karroan itzuli bat emateko aukera izan zuten gaztettoek. E. EZEIZA



Inguruarten dagoen errekatik igaro behar zuten. E. E.



Proba ugari gainditu behar zituzten zaldiek. E. EZEIZA

Goza ezazu **aparteko** udaz

Nokia 3230 0€
 Sony-Ericsson W910i 19€
 LG Chocolate 0€

hain **Udako Unika Tarifaz** ere 0€
dei gurtiak indarrez erabiltzen eta erabiltzen erabiltzen

San Francisco, 19
Tolosa
933 698 126

MARIO MOLINA ▶ KIMIKA NOBEL SARIA

«Kiotoko hitzarmenaren ondorioz Europa nahiko aktiboa da»

Mario Molina nobel saria aldaketa klimatikoaren aurrean munduak duen jarreraz eta arazoaz aritu da

NEREA URBIZU

Mario Molina kimika nobel saria Tolosan izan da aste honetan, Naturaldia jardunaldietan parte hartzen (Veracruz, Mexiko, 1943). Txillida-Lekun munduaren berotzeari buruz eman zuen hitzaldia. Kimika nobel sariak ozono geruzako zuloa deskubritu zuen bere ikerketa taldearekin batera.

Zer moduz joan zen hitzaldia?

Ondo. Jendeak kezka dauka, aldaketa klimatikoa leku guztietan nabaritzen ari da. Galdera oso zehatzak ere egin zituzten, teknologia zehatzei buruz. Adibidez, zein den energia nuklearraren papera: oso galdera eztabaidagarria, bide batez. Galdera orokorrak ere izan ziren; pertsonen eta komunikabideen papera zein izan behar den arazoaren aurrean ere bai. **Munduaren beroketa zergatik eman, ematen da?**

Hori hitzaldiaren hasieran azaldu nuen. Ebaluazio oso objektiboa egin dugu nazioarteko zientzialari taldekook. Zientziari buruzko publikazioetan ateratako informazioa baloratu

dute kontu handiz. Klima aldatzen ari dela oso bistakoa da; ez da nahikoa klima aldatzea Euskal Herrian baizik eta planeta guztian. Hau gizakien portaeraren eta ekintzen ondorioa izan da; ziurtasun osoz ezin dut esan, baina bai behintzat ehuneko 90etik goragoko probabilitatearekin.

Beraz, kezkatzeko moduan gaude, ez dugu exajeratzen?

Bai, objektiboki eta espezifikoki demonstratu daitekeelako. 10.000 aldaketa daude behaketetan. Gure portaeraren emaitza da. Euskal Herrian ez dakit zehazki nola dagoen kontua, baina entzundakoaren arabera, aldaketa hemen ere nabaritzen hasi da.

Zein da herrialderik kontzientziazatuen arazo honekin?

Kiotoko hitzarmenaren ondorioz, Europa nahiko aktiboa da zentzu horretan. Ekintza zehatzak egiten ari dira, pauso sendoak ematen ari dira honen aurrean.

Eta axolagabeena zein da?

Ez dago oso argi; AEBei kritika zuzena egiten zaie, bertako presidentea den George Bush-



I. TERRADILLOS

en administrazioak onartzen du, baina ez du guztiz konpromisoa hartzen. Aldaketak daude baina duela gutxiokoak dira. AEBetako portzentai altu bat, hala ere, kezkatuta dago arazoarekin. Kaliforniak, adibidez, Kiotoko hitzarmenaren bertsioa dauka eta erabaki batzuk hartu ditu, gobernu federaletik kanpo. Ipar ekialdeko hainbat estatuk ere bai. Arazo handien sortarazten dituztenak, beti ere, irtenbideetan parte hartzeko, posibleen, Txina eta India dira. Baina kolaboratzeko itxaropena dugu, haien garapen

ekonomikoaz ere kezkatu daudelako. Teknologia garbiagoak erabiliko dituztela espero dugu, laguntza ekonomikoarekin.

Nolatan etorri zara Tolosara?

Gonbidapena jaso nuen, klimaren aldaketari buruz hitz egiteko eta Naturaldiako jardunaldi hauetan horregatik nago. Beste hainbat hitzalditan ere izan naiz European, gai hau jorratzen. Astelehenean iritsi nintzen eta ongietorria egin zidaten Tolosan; polita izan zen. Oso ongi artatu naute.

Zuri esker CFCren debekua

aplikatu zen herrialde garatuenetan.

Bai. Montrealeko hitzarmenari esker izan zen, 1996an, eta Ozonoaren arazoaren aurrean sortu zen. Ozono geruzari zerbait gertatzen ari zitzaioala argi ikusi zen, eta aerosoletan erabiltzen den CFCa (klorofluorokarbonoa) bezalakoek kalte egiten ziotela ikusi genuen. Ondorioz, honen ekoizpena etetera erabaki zen, debekatu, alegia. Modu honetan, mundu mailako arazo handi bati aurre egin zaio.

Ozono geruzan zuloa zegoela nola ikusi zenuen?

Hainbat behaketa egin genituen nik eta britainiar batek, eta japoniar batzuk. Zerbait ikusgarria gertatzen ari zela ikusi genuen. Ondoren, pentsatzen genuena gertatu zen, baina ez genuen hori aurrean. Laborategian behaketak egin ahal izan nituen, kimika berriki ikasi nituelako demonstratzen. Kimika munduan, normalean, prozesu kimiko guztiak azeleratu egiten dira tenperatura altuetan; sukaldetan gaudenean ikusten da, eta hala deskubritu nuen.



TOLOSALDEA GARATZEN, Tolosaldeko Garapen Agentziak, ondorengo lanpostua bete behar du:

PROMOZIO ETA DINAMIZAZIO TURISTIKORAKO ARDURADUNA

Gerentziaren menpean, Tolosaldea eskualdeko dinamizazio turistikorako egitasmoa garatzea izango da bere zeregina:

- ❖ Promozio/Komertzializazio ekintzetan parte hartzea
- ❖ Eskualdeko udalekin antolakuntza turistikoak bideratzea eta ondorengo dinamizazioa bultzatzea
- ❖ Lehiakortasun turistikoaren baitan ekimen pribatuarekiko elkarlana Lanposturen profila:

✓ **Goi edo erdi mailako titulazioa.**

✓ **Baloratu egingo dira arlo honetan izandako esperientzia, Tolosaldea eskualdea ezagutzea eta turismo alorreko eragile eta erakundeen ezagutza.**

✓ **Euskaraz jakitea: 3, hizkuntza eskakizuna.** Ez daukatenei, maila neurtzeko azterketa egingo zaie. Beste hizkuntzen ezagutza baloratuko da.

✓ **Pertsona arteko harremanetan eta talde lanean gaitasun ona behar da, saiata eta baita ekimena ere.**

Interesatuak bidali kurrikuluma tolosaldea@tolosaldea.net edo San Esteban 20ra, Tolosan. Aukeraturako hautagaiei bakarrik erantzunoko zaie (10 egunetan gutxi gorabehera).

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK



GOIZETARAKO LANGILE BAT BEHAR DU

Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria. Erref.: THH

- Derrigorrezkoa: EGA titulua edo balioidea
- Inglesaren ezagutza baloratuko da
- Informatikaren ezagutza baloratuko da

TOLOSAKO eta ANOETAKO IKASTOLEK

JARDUERA MURRIZTUAN LANGILE BAT BEHAR DUTE

DBHn matematika, biologia eta informatika emateko. Erref.: TBH

Zientzietan lizentziaduna (matematika, biologia, kimika)

- Derrigorrezkoa: CAP eta EGA titulua edo balioidea
- Inglesaren ezagutza baloratuko da

Curriculumak e-maillez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera. Jasoko diren azken eguna, uztailearen 4a.

LEITZA ▶ EKONOMIA



Margarita Zabaletak etxean duen koadro batean, Fermin 12 urterekin aizkorak egiten. Erbititarrak lanean aspaldiko argazki batean. HITZA

Aizkora, iraganeko erreminta

Erbititarrek, Martin Motxeneren laguntzarekin, urte asko eman zituzten aizkorak egiten, eta ordungo aizkolarari ezagunenak beraien bezero izan ziren

NAIARA GARZIA

Gaur egun Bitxi Lore lore-denda dagoen lekuan duela 14 urtera arte Erbititarren tailerra egon zen. Horretan lanean aritu zen azkeneko belaunaldia hiru anaiena izan zen arren (Fermin, Luis, Tomas), hauen aita zenak ere (Martin Erbiti) urte asko egin zituen aizkorak egiten. Margarita Zabaleta Fermin Erbitiren alarguna da. «Martin Erbitik egin eta saldu egiten zituen. Bestela nola bizi behar genuen?», dio Zabaletak. Bere senarrak txikia zenetik hori eza-gutu zuen etxean. «Etxean daukagun koadroan senarra lanean azaltzen da eta orduan 12 urte zituen». Hasiera batean tailerlean eguneko hiruzpalau aizkora egiten zituzten arren, denborarekin 20 inguru egite-ira iritsi ziren.

Erbititarrek egindako aizkorrek halako arrakasta izan zuten, non Espainian eta atzerrian ere saltzen zituztela, Erbiti jartzen zuen seiluarekin. «Aizkora hauek arrakasta handia izan zuten. Nik gogoan dut, txikia nintzela, aizkoraz betetako pakete asko izaten zirela kanpora bidaltzeko», dio Arantxa Erbiti alabak. «Frantzia, Australia... Australiako aizkora ezagunak hemen erosten zituz-

ten, eta gero Australiatik honera bidaltzen zituzten», gaineratu du.

Tailerlean hiru anaiek egiten zuten lan burnia lantzen: Tomas, Luis eta Ferminek, eta hauek ziren aizkora buruak egiten zituztenak. Aizkora kirtenak, berriz, Narziso Sestorain Alduntzinek (Martin Motxene) egiten zituen. Gainerako

guztia Margarita Zabaletak bere gain hartzen zuen. «Amak egiten zituen paperak, eskaerak... Aizkorak korreoz edo trenez bidaltzen genituen. Gero Tomas hil egin zen eta beste Luis bat hasi zen lanean, lehengusuaren semea».

Erbititarren bezeroen artean aizkolarari asko egon arren, aizkora asko saltzen zituzten bes-

te zenbait helburuetarako, etxerako bereziki. «Lehenago aizkorak asko erabiltzen ziren, baserri guztietan aizkoraren bat bazegoen», dio alabak. «Egurra mozteko, baratzetan makilak egiteko... gero motozerra asmatu zuten eta aizkorak behera egin zuten, baina orduarte ezinbestekoa zen etxean».

60 urte aizkora kirtenak egiten

Martin Motxenek urte asko egin zituen Leitzalarrean zegoen zentral batean lanean, 25 urte zituela hasi baitzen bertan, baina lan honetaz gain, bere bizitza osoan zehar aizkora kirtenak egin zituen. Honela, Leitzalarreko zentrallean lanean eman zituen urte horietan, makinak zaintzen zituen bitartean ordu asko egin zituen aizkora kirtenak egiten.

Urte horietan Erbititarrentzat ezezik, beste hainbat tailerrentzat ere aizkora kirtenak egiten zituen. Denborarekin Erbititarren tailer ondoan hasi zen lanean tarteka, eta 65 urte zituela zentralako lanetik jubilatutako ondoren, 20 urtetik gora eman zituen hortxe, goizez eta arratsalde, *trabajalkia* aurrean zuela, 83 urte bete zituen



Martin Motxene irrifartsu, egurrez inguratuta. HITZA

arte. Egurra moztu ondoren 6 hilabetez lehortzen uzten zuten, eta gero listoieta ebaki ondoren, bakoitzean kirtena marrazten zuten. Ondoren egu-

rra moldatzen zuten eta azkenik, lija ezberdinekin eskuz lixatzen zuten, lixa ezberdinekin. Amaitzeko burua eta kirtena elkartzen zituzten. ◀

MIKEL MINDEGIA
AIZKOLARIA

«Orduan hobereenak hauek ziren eta nik fedea haiekin nuen; Gero, Australiatik erosten genituen»



PATXI ASTIBIA
AIZKOLARIA

«Garai hartan aizkolarari guztiok erbititarren aizkorak erabiltzen genituen, 100 aizkolaritatik 99,5ek»

Erbititarrek ezagunak ziren aizkora munduan, eta Euskal Herri, Estatu Espainiar eta nazioarte mailan erreferentzia izan arren, Euskal Herrian ez ziren bakarrik. «Zumarragan ere beste enpresa bat bazegoen eta Urnietan, baina horiek ez zuten dena eskuz egiten. Ez ziren gureak bezain onak, jendeak hori esaten zuen behintzat».

Leitzan aizkorak saldu eta kanpora bidaltzeaz gain, Erbititarrek ere azoketara joaten ziren. «Doneztebe, Lesaka, Elgoibar, Donostia... Azoka askotara joan ziren urte horietan eta 1950. urtean Donostiako santotomasetan Ohezkero Diplomata jaso zuten».

Burnia eta altzairua Legazpitik ekartzen zituzten eta egurra, berriz, Leitzako mendieta-tik hartzen zuten. «Oso lan gogorra zen, bat alde batean jartzen zen eta bestea bestean. Gero gorituta zegoela buelta ematen zioten, eta golpeka lantzen zuten».

Aizkolariak

Asko izan dira Erbititarren aizkorak gustuko zituzten aizkolarriak. «Arria, Luxia eta Mindegia etortzen zaizkit gogora, eta herrikoak, Astibia eta Garziarena», dio Margarita Zabaletak. «Hauek beti hemen erosten zituzten».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Begiradak. Sartu gure webgunean eta ikusi gure atal berria: Begiradak.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen Eguna
Alegian: 11:15ean elizkizuna hildako bazkideen omenez; 14:00etan Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxean bazkalduko dute, eta bertan bazkiderik zaharrenak omentzeko dira: Teresa Agirrezabala eta Jose Mari Irastorza.
Anoeta. Udaletik jakitera eman dutenez, Udal Liburutegiaren ordutegia aldatu egingo da uztailaren: 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Internet erabili nahi duenarentzat, 09:30etik 13:00etara izango du aukera.
Asteasu. 10:00etan pilota txapelketako finalak; 12:00etan pala txapelketako finalak; ondoren sagardo dastaketa; 18:00etan herri kirolak; 19:30ean Aiko taldea(musika eta dantza-animazioa).
Ibarra. 09:00etatik 10:00etara gosaria; 10:30ean moto irteera; 13:00etan itzulera eta 14:00etan bazkaria.
Lizartza. Udalaren osaketa dela eta, bihar, 08:30ean elkarretaratzea egingo dute udalburu parean. Herritar guztiei dei egiten diete euren etxeko balkoietan ikurrina jartzeko.
Tolosa. Jubilatuen bazkaria egingo dute Ferialekuan.
Tolosa. Amarotz auzoko jaien baitan, euskal erromeria izango da ikusgai, eta baita Amarozko Dantza Taldea eta Txikien Euskal Dantza Taldea ere.

ZINEMA

Tolosa. *Shrek 3* filma emango dute Leidor aretoan 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.
Bihar
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Motorren museoa

IBARRA ▶ Langostino Moto Festaren lehen egunean, motoek eta motozaleek museo itxura eman zioten herriko plazari



Atzo bezala, gaur ere mimos egindako artelanak ikusteko aukera bikaina egongo da Ibarra. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Motoak ilaran zeuden Ibarra, museo bat osatuaz. Moto beltz baten inguruan jende ugari elkartu zen liluraturik. Bertan, el-karrizketa hau entzun zen atzo: «Hik zer duk bada, nirea baino hobea?». «Hago ixilik mukizu, hori ez duk filosofia», erantzun zion ilarako zaharrenak, ondoren zera argitu zion. «Zer galdera duk hori? Lehen aldia duk, ezta? Lasaitu hadi, erre gurekin karretera pixkat eta hurrengo urtean nahi baldin baduk, erantzungo diat».



Plazan egokitutako lekua bete zuten motorrek atzokoan. A. IMAZ



Mota eta marka guztietako motoak bildu ziren. A. IMAZ

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN!

Amona. Biloba guztien partetik 83 muxu goxo! JTK!



URTE ASKOAN
Ibai Gabirondo Gaztañaga (Alegia). Gaur 9 urte. Muxuak familiaren partetik.

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...